

## LASARTE-ORIAKO VII. MUSIKA MAKETEN LEHIAKETA.

Lasarte-Oriako Udalak, Gazteria, Jaiak eta Kirol Batzordearen bitartez, Lasarte-Oriako VII. Musika Maketa Lehiaketarako deialdia egiten du, oinarri hauen arabera:

### OINARRIAK

1.- Edozein musika-estilotako talde nahiz bakarlariek parte hartu ahal izango dute, **baldin eta formato komertzial konbentzionalen lanik argitaratu ez badute**. Talde nahiz bakarlariak naziokoak edo nazioartekoak izan ahalko dira, eta ez da ezinbestekoa izango parte-hartzaileetako bat Lasarte-Orian erroldatua egotea. Aurreko ekitaldietan sariztaturikoak ezingo dira aurkeztu espezialitate sariztatuetara.

2.- Lehiaketa honetan izena emateko, parte-hartzaile guztiek hiruna kanta aurkeztu beharko dituzte, eta horietako bi gutxienez jatorrizkoak izango dira. **Kanta bakoitzak hiru minutu inguruko iraupena izango du, eta MP3 formatoan bidaliko da.**

3.- Talde edo bakarlari bakoitzak, hiru kantekin batera, izenemate-fitxa behar bezala beteaurkeztu beharko du atxikitako artxibo batean, eta beste artxibo bat taldearen argazki digitalarekin. **Erantsiko diren hiru kantak, inskripzio-fitxa eta argazkia ez dira 15MBtik gorakoak izango.**

4.- Gutxienez taldekideen ehuneko berrogeita hamar Lasarte-Orian erroldaturik dagoela fitxan adierazirik uzten duten taldeek, berariaz haientzat sortua den "Lasarte-Oria" sarirako aukera izango dute.

5.- Maketak posta elektronikoz bidaliko dira, 2015eko irailaren 28tik urriaren 30a bitartean. Epe horretatik kanpo ez da maketarik onartuko. Helbide honetara bidali behar dira:

[musika@lasarteoriasarean.eu](mailto:musika@lasarteoriasarean.eu)

6.- Sariak:

Sari honi indarrean dagoen legediaren arabera PFEZa aplikatuko zaio.

Lehenengo saria:	1.000 € esku-dirutan
Lasarte-Oria saria	700 € esku-dirutan
Euskera saria:	500 € esku-dirutan

7) Gazteria, Jaiak eta Kirolak Batzordeak izendatuko du epaimahaia, kontutan izango duela parekotasuna, eta epaia ematerakoan ezagutaraziko dira epaimahaia osatuko duten kideak. Epaimahaiak aukeratuko ditu irabazleak. Azken baloraziorako, ez da kontutan izango grabazioaren kalitate teknikoa, baldin eta hitzak eta musika argi entzuten badira. Epaimahiaren erabakiak apelaezinak izango dira, eta sariak eman gabe geratu ahalko dira.

8.-Gazteria eta Jaiak Batzordeak, lehiakide batzuk edo guztiak emanaldiak egitera gonbidatu ahal izango ditu, Batzordeak zehaztutako lekuan, egunean, orduan eta baldintzetan. Parte-hartzaileek ez dute dirurik jasoko kontzertu horietan esku hartzeagatik.

9.- Parte-hartzaileek Lasarte-Oriako Udalari utziko dizkiote kanten soinua eta ikusentzunezkoa finkatzeko eskubidea, bai eta kantok internet bidez zabaltzekoa ere, dohainik eta indarreko legeak ezartzen duen epean zehar.

10.- Lasarte-Oraiko Udalak ez du bere gain hartuko lehiaketan aurkeztutako kantetatik erator litezkeen autore eskubideen nahiz antzekoen kudeaketaren arduraren alderdi bakar bat ere.

11.- Oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein zirkunstantzia edo oinarrioren gaineko edozein zalantza, Gazteria eta Jaiak Batzordearen irizpidearen arabera ebatziko da.

12.- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar berekin. Oinarriotako edozein puntu betetzen ez duena automatikoki lehiaketatik kanpo geratuko da.